

USURBIL – ELKARGUNEA

4. SAIO IREKIA

Eguna: 2024/05/18

Ordua: 10:00-13:30

Tokia: Udarregi Ikastolako Haur Hezkuntzako geletan

Bildutakoak:

- Guztira, 20 lagun; % 50 emakumeak eta gainerako % 50 gizonak
- Usurbilgo Udaleko 3 arduradun politiko eta udal-teknikari bat
- Elhuyarreko partaidetza eta eraldaketa soziala arloko 2 aholkulari

Landutakoak:

1. Sarrera eta girotzea

Hasteko, hurbildutakoei ongi etorria eman diegu eta Elkargunea proiektua modu partekatuan definitzeko partaidetza-prozesuko laugarren saio irekia kokatu dugu, saioaren nondik norakoak aurkeztuz:

- Sarrera eman eta girotzea.
- Elkargunea proiektuaren barne antolaketa irudikatzea.
- Elkargunea proiektuaren kudeaketa ereduaz hausnartzea, eta posible bada, adostasun batera iristea.
- Balorazioa egin eta bilera ixtea.



Giotzea

Edukia lantzen hasi aurretik, taldean lan-giroa sortu, harremanak sendotu eta lehen gogoetetan murgiltzeko helburuarekin, dinamika bat proposatu dugu: partaideei zutitzeko eta beste bi kide aukeratzeko eskatu diegu. Aukeraketa zein izan den partekatu gabe, hautatutako kide horiekin hiruki bat osatzeko erronka luzatu diegu. Talde osoak bere kokatzea lortu duenean, nola sentitu diren galdetu diegu. Azpimarra jarri dugu ondorengo ideian: taldeak biziak dira eta kide bakoitzak bere tokia/rola/ardura behar du izan taldearen oreka eta funtzionamendu egokirako. Taldekideren bat taldetik ateratzeak edo berri bat sartzeak talde osoari eragiten dio eta taldeak, talde bezala, oreka berriak sortu behar izaten ditu.

2. Elkargunearen barne-antolaketa irudikatuz

Taldeari kideen joan-etorriek sor diezaieken oreka-ezaren inguruko lehen gogoetak partekatu ostean, Elkargunea proiektuko barne antolaketa irudikatzeari ekin diogu. Irudikatze honekin hasi aurretik, gogora ekarri ditugu aurreko saio irekietan hitz egin, hausnartu, eztabaidatu eta adostutakoak:

Nondik gatoz?


- **Lehen saioan:** zer gertatzea nahi genuen irudikatzen hasi ginen. Kudeaketa eta barne antolaketari dagokionean ondorengo gaiak jorratu ziren:
 - o Gaztelekua Elkargunera eramatearen beharrezkotasuna.
 - o Taberna bat egotearen aukera. Hala ere, hirugarren saioan, taberna baten ideia baino, barra baten ideiak sortu zuen adostasuna.
 - o Eta zenbait galdera: nork eraman behar du lidergoa?, behar ote da langilerik?, giltzaren kudeaketa nola egingo da?
- **Bigarren saioan:** talde sustatzaileari, elkarguneari eta herriari lotutako gaien inguruan jardun ginen. Adostu zen Elkarguneak gazteen beharrei, askotariko herritarren beharrei eta transmisio beharri erantzun beharko liokeela. Eta zenbait balio izendatu ziren. Talde sustatzailearen egitekoei dagokienez:
 - o Ikuspegi estrategikoa izan behar du,
 - o Koordinazioa eta kudeaketaren ardura,
 - o Harremanak eta barne zein kanpo komunikazioa zaindu behar dituela,
 - o Eta baliabide ekonomikoaren jarraipena egin beharko lukeela, besteak beste.
- **Hirugarren saioan:** Elkargunean burutu beharreko jardueren eta espazioaren antolaketaren inguruan aritu ginen. Eragile bakoitzaren jardueraz gain, zenbait egitasmo amankomunean antolatzeko beharra ikusi zen. Ideia berrienak izan ziren: sormenari lotutako espazio/jarduera

ezberdinak; Gaztelekuko zein Ziortzako gazteek behar duten espazio askeago baten beharra. Bestetik, hiru espazio/eremu nagusi identifikatu ziren.

Barne-antolaketa irudikatuz: dinamika


Hitz egin, hausnartu, eztabaidatu eta adostutakoak presente, lau zpabost laguneko taldetan jarri gara eta Elkargunea proiekturako zer nolako barne-antolaketa irudikatzen hasi gara. Irudikatu ondoren, talde handian partekatu ditugu talde txikietan landutakoak:

Lantaldea 1



- Erdian kokatu dugu talde motorra, elkargunearen erabaki gune iraunkor izango dena. Eragile guztien ordezkariak eta elkarguneko militanteak osatua. Figura hauek proiektuan bertan militaratuko lukete, ez dute zertan beste eragileetan parte hartu. Osaera txandakatua irudikatu dugu, etengabe aldatzen joango dena, partaidetza estanko bat izan gabe. Talde motorraren funtzioak izango dira: batetik, taktikoak, egunerokotasunari lotutakoak: gestioa, gobernantza, koordinazioa, balioen jarraipena, marko teorikoa betetzen dela ziurtatzea; bestetik, espazio ezberdinen kudeaketaren jarraipena egitea. Astero edo bi asterik behin bilduko da.
- Talde motorraren gainetik kontrol organo bat, batzar orokor bat, asanblada nagusi bat irudikatu dugu. Erabaki estrategikoak hartuko lituzke, talde motorrak hartu behar ez dituenak. Hiru hilean behin biltzea aurreikusi dugu.

Lantaldea 2






Tipula bat irudikatu dugu, geruza ezberdinak dituena. Haietan parte-hartzeko aukera anitzak, talde eta pertsona ezberdinak:

- Kanpo-kanpoko geruzan: herritar oro irudikatu dugu, parte hartu nahi duen oro. Parte-hartzea eta erabaki ahalmena mugatua.
- Kanpotik hasita bigarren geruzan: Elkargunea erabiliko duten eragileek hartuko lukete parte, Elkargunearen erabaki eremuetan ez dauden eragileek. Demagun: Zumarte, Ernai, dantza taldea, Txirikorda... momentu puntaletan erabiliko lukete Elkargunea eta ez dute erabaki ahalmenik izango; ezta asanbladako parte izango ere.
- Hirugarren geruzan: Elkargunean aktiboki parte hartzen duten lau eragileak eta aurrera begira batu daitezkeenak egongo lirakeke. haien jarduera propioa izango lukete.
- Azken geruzan, barrualdekoan: talde sustatzailea legoke. Aurreko lau eragileetako ordezkariak bilduko litzateke bertan: baita Elkarguneko partaide propioak ere. Erabaki ahalmen handiena izango lukete geruza honetan parte hartzen dutenek.

Lan-taldea 3




- Talde motorrean ardura ezberdinak izango dituzten figurak irudikatu ditugu: barraren kudeaketa egingo duena; koordinazio gaiak landuko dituena; komunikazio arduraduna; mantenua, materiala eta garbiketara kontuen arduraduna...
- Talde motorrekin lotuta, egun dauden lau eragileen ordezkariak eta bertara batu daitezkeen kideak leudeke. Gestioz arduratuko lirakeke, baina beste maila batean.
- Urtean bitan bilduko den asanblada orokor bat ere irudikatu dugu. Denen artean zenbait kontu erabakitzeke balio izango luke.

Lan-taldea 4

- Kudeaketa hibrido/misto baten inguruan hitz egin dugu. Posible litzake kudeaketa eredu ezberdin bat espazio bakoitzerako?
- Asanblada orokor bat irudikatu dugu.
- Baita talde sustatzailea ere. Garrantzitsua iruditzen zaigu bertan parte hartuko duten ardura eta lan-zama zaintzea, arriskua egon daitekeelako orain aktibo dauden taldeak ahultzeko. Elkarguneko talde sustatzailean parte hartzeagatik, ez dadila gainontzeko eragileen jarduna ahuldu.
- Asanbladak prestatzeko ardura txandakatua eragileen artean.
- Elkargunea herrira zabaltzeko beharko genuke.
- Udalarekin lotuta, harremana nola bermatu eta zeinek egin beharko lukeen pentsatzen aritu gara. Ideietako bat izan da: Gaztelekuan egun sortuta dagoen figura izatea udalarekin lotura eta koordinazioa egingo duena. Udalak Gaztelekuen kudeaketarako lizitazioa atera behar duenean, gaur egungo ardurez gain, gehigarri bat planteatzea funtzio hauek betetzeko.

Lan-taldea 5

- Asanblada nagusi bat irudikatu dugu, urtean bi edo hiru aldiz bilduko dena. Estrategia, norabidea, ikuspegi orokorra izango ditu espazio honek.
- Talde motor bat ere irudikatu dugu, egunerokotasuneko lanak egingo dituen. Eragileen ordezkartzeekin eta eragileetako ez den norbanakoarekin osatuko litzateke espazio hau.
- Beste ideia batekin bueltaka ere aritu gara: astean ordu batzuetarako pertsona bat liberatzeko aukeraren inguruan, hain zuzen. Eguneroko kontuak, logistika, agenda, koordinazioa... eramango litzuzke. Pertsona hau kontratatzeke finantziario iturriak aztertu beharko lirateke. Agian ardura hau ez da orain sortzekoa, baina bai aurrera begirakoan.



3. Elkargunearen kudeaketa-ereduz hausnartuz

Jarraian, Elkargunea proiektuaren kudeaketa-ereduz hausnartzera pasa gara. Gai sakondu aurretik, partaideei lurrean marraztutako lerroan kokatzeko eskatu diegu, Elkargunea proiekturako zein kudeaketa-ereduren baitan lerrokatzen diren adierazteko. Ereduen bi muturrak irudikatu ditugu: alde batean “autogestioa” terminoarekin definitu dugun eredu; beste muturrean “kudeaketa publiko zuzena” gisa definitu duguna.

Taldea “autogestio” eredutik gertuago kokatu da, lerroaren erdiko ardatzetik alde batetara. Hasierako argazkia, beraz, nahiko bateratua izan da.



Besterik galdetu gabe eta elkarrizketa sustatu gabe, taldea non kokatuta dagoen behatzeko eskatu diegu partaideei. Ondoren, kudeaketa-ereduei dagozkien bost agertoki ezberdin aurkeztu ditugu:

1. **Autogestioa.**
2. **Hitzarmena.**
3. **Ko-kudeaketa.**
4. **Lizitazio publikoa.**
5. **Kudeaketa publiko zuzena.**

Eredu hauek horrela izendatu baditugu ere, horietako bakoitzak ezaugarritze anitzak izan ditzakeela adierazi dugu; ez direla eredu zurrun eta itxiak; tokian-toki eta errealtatearen arabera ezberdin ezaugarritu daitezkeela. Eta, gogoetetan sartu aurretik, ekipamenduaren ezaugarri nagusi bat kontuan izan dezatela gogorarazi diegu: **Elkargunearen eraikina Udalaren jabetzakoa izango da. Ez da espazio okupatu bat izango; ezta jabetza pribatukoa ere. Ondorioz, Udalarekin harremana eraikitzea ezinbestekoa izango da.**

Abiapuntu hau oinarri hartuta, bost talde txiki osatu ditugu eta bakoitzari agertoki bat esleitu diogu, mozorroak banatzearekin batera. Ariketaren egitekoa izan da egokitu zaien ereduaren abantailak zerrendatzea. Rol-playing bat egin behar izan dute, haien iritzia alde batera utzita, egokitu zaien ereduaren defendatzaile bihurtuz. Lanketan zehar, arreta ondorengo gaietan jar dezaten eskatu diegu: **eragileen eta norbanakoen parte-hartzea; Udalaren rola eta honekiko harremana; giza baliabideak; bideragarritasun ekonomikoa; finantziak; espazioaren antolaketa...**

Talde txikietan aritu ondoren, talde bakoitzak dagokion kudeaketa-eredu posiblea aurkeztu eta defendatu du; kudeaketa-eredu bakoitzaren abantailak azaleratuz.

Lan-taldea 1: Autogestioa

Fitxan jasotako definizioa: Udalak eraikinaren erabileraren lagapena egingo lioke elkarte bati eta elkarteak izango litzake ekipamenduaren kudeaketa osoa beregain hartuko lukeena. Elkarrekin autonomia osoz jokatuko luke; betiere lagapen kontratuan Udalarekin adosturiko terminoak errespetatuz.

Zerrendatutako abantailak:

- Burokrazia eza.
- Erabaki-eskumen osoa.
- Ardura eta elkarbizitzatik ahalduntzea.
- Demokrazia burgesetik aldentzeko aukera.
- Askatasun finantzarioa.
- Programaketa librea egiteko aukera.
- Askatasuna eta burujabetza.



Lan-taldea 2: Hitzarmena

Fitxan jasotako definizioa: Udalak hitzarmen bat sinatuko luke elkarte batekin; nolabaiteko kontratu ekonomiko bat, dirulaguntza izendun edo zuzen baten forma lukeena. Hitzarmen horretan jasoko lirateke elkarrekin betebeharrak eta jasotako diruaren erabilerari dagozkionak.

Zerrendatutako abantailak:

- Udalaren esku-hartze minimoa (urtean 2 bilera).
- Proiektuari sendotasuna.
- Parte-hartzaileen inplikazioa.
- Udalaren babes ekonomikoa.
- Negoziazio aukerak (gastuak).



Lan-taldea 3: Ko-kudeaketa

Fitxan jasotako definizioa: Kudeaketaren ardura partekatua izango da Udalaren eta elkarte baten (edo zenbaiten) artean. Boterea maila berean partekatuko litzateke, horizontaltasunaren printzipioa erdigunean egonaz. Kudeaketa horren parte diren erakunde eta eragileen artean adostuko litzateke bakoitzak zein rol eta funtzio izango litzuzkeen.

**Zerrendatutako abantailak:**

- Proiektu bateratua Udalarekin.
- Etengabeko egokitzapena.
- Herritik herriarentzat.
- Harreman horizontala.
- Ikuspegi objektiboa.
- Baliabideak lortzeko erraztasuna.
- Ikuspegi zabalagoa.

**Lan-taldea 4: Lizitazio publikoa**

Fitxan jasotako definizioa: Udalak lehiaketa publikora aterako luke ekipamenduaren kudeaketa, lizitazio publiko baten bidez. Udala litzake lizitazio horren baldintzak definitzen dituen eta enpresarekin kudeaketaren jarraipena egiten duena.

Zerrendatutako abantailak:


- Eragileak ez dira erreko, erabiltzaile potentzialak dira (eurek jarritako oinarrien baitan).
- 4 eragileen pribilegioa VS eragile guztien aukera (botere harremanak).
- Lehiaketa publikoa, aukera berdintasuna.
- Profesionala: arreta/zerbitzuetan bermea (baliabideak eta erabilera egokia).
- Solbentzia ekonomikoa.
- Guk ezarritako baldintzetan (balioak, marko pedagogikoa, ideologia).
- Diru-publikoaren erabilera egokia enpresa pribatuak.
- Herriari egokituta irekita egoteko bermea.
- Gazteentzako lan aukerak.
- Iraunkortasuna.
- Seriotasuna: zuzenbide estatuaren baitan (irisgarritasuna, gaitasuna, adin txikikoen zaintza...).

**Lan-taldea 5: Kudeaketa publiko zuzena**

Fitxan jasotako definizioa: Udalaren ardura eta eskumena litzateke ekipamenduaren kudeaketa, bere osotasunean, hirugarren bitartekaririk (enpresa, elkarte...) kudeaketan inplikatu gabe. Udalak erabakiko luke ekipamenduaren funtzionamenduan eragina duten erabakiak modu partekatuan hartzeko espazioak ahalbidetzea edo ez.

Zerrendatutako abantailak:

- Taberna/kafetegia (lanpostu berriak).
- Zetak! + soinu teknikari profesionala.
- Zerbitzu profesional ezberdinak eskura (psikologoa, sexologoa).
- Gestioen lan-kargarik ez.
- Udaleko langileak Elkargunerako mesedetan langile guztiz liberatua(k).
- Bideragarritasun ekonomikoa bermatuta.
- Mantenua Udalaren kontu.
- Elkargunearen beharrak Udalari transmititu, Udalak bete.



Partekatzearen ondoren ez dugu eztabaidarako tarterik ireki. Norbera bere gogoetetan murgilduta, atsedena hartu dugu.

Konfiantzan sakontzeko ariketa



Partaideei bi ilaratan jartzeko eskatu diegu, bata bestearen parean, eta metro bat eman diegu. Erronka metroa behearaino jaitea izan da, denek batera bi behatzekin eutsiz; behin hori lortuta, berriro gora egin behar izan dute. Behin erronka burututa, zer moduz sentitu diren galdetu diegu eta hurrengo gaien garrantzia azpimarratu dugu: elkar konfiantza, bakoitzaren lanarekiko arreta, koordinazioa, komunikazioa, lidergoak eta ardura banaketa...

Norberaren iritzia partekatzea

Konfiantzan sakontzeko ariketarekin amaitutakoan, berriro ere, partaideei lurrean marraztutako lerroan kokatzeko eskatu diegu, gogoetatutako guztiaren ondoren Elkargunea proiekturako zein kudeaketa-eredu nahiko luketen adieraziz.

Ikusi ahal izan dugu hasierako argazkitik taldea mugitu egin dela. Orain, taldea erdigunerako kokatzen da, ko-kudeaketaren agertokian ere posizioak hartuz. Autogestioaren agertokian kide batzuk kokatzen badira ere, multzo handiena autogestioaren eta ko-kudeaketaren erdibidean kokatu da.

Ondorengo iritziak partekatu dituzte partaideek ahoz gora, talde handian:

Ereduaren ingurukoez:

- *Ni pertsonalki pixka bat harago jarriko nintzake, autogestiorantz, baina Gaztelekutik natorren heinean, bai sentitzen dudala Udalarekin jarraipen bat eduki behar dugula, orduan ko-kudeaketatik gertuago kokatzen naiz. Baina ulertzen dut beste eragile batzuk, autogestiotik gertuago kokatzea eta ezberdintasuna kudeatzeko arazorik ez.*
- *Niretzako hemen, naiz eta Elkarguneaz hitz egiten aritu gauza bakar bezala, ez gara errealtate bakar batez ari. Izaerari edo espazioari lotuta, kudeaketa ezberdinen hibrido bat izan beharko dela iruditzen zait, hala izango da, eta hibrido horretan baita ere sartzen dut Udala. Uste dut KO- bat egon beharko dela, horrek ze forma hartu behar duen, nola izango den, ez dakit. Biren arteko harreman izango den, edo eragile ezberdinen KO- izango den. Hori ondo engrantzeak bere koxkak izango ditu. Eta finantzaketari dagokionean, autogestioa egotea oso inportantea da, baina iruditzen zait, baita ere, horrelako espazio batek baliabide batzuk eskatzen dituela.*
- *Nik horrexegatik eman dut pausu bat honantzago (ko-kudeaketarantz): batez ere finantzaketari lotuta. Irudikatu genuen sortzaileen txokoa eta iruditzen zait horrekin lotuta bekak egon daitezkeela eta beka horiek nola kudeatzen diren...; eta, aparte, Gaztelekua ere egongo da bertan.*
- *Ni autogestioan kokatu naiz, hasieran esan dudana bezala, autogestioa ez dudalako ulertzen gune okupatu batean bezala, guztiz autogestionatua izango dela, basea delako udal eraikin batean egongo garela eta hori horrela da. Baina oso garrantzitsua iruditzen zaidalako autogestioa balio inportantetzat hartzea, hasieratik hasten bagara KO- eredu hori markatzen, instituzioa gu baino jarriago dago gaian eta beraien interesak defendatuko dituzte, gure interes alternatiboak baino. Niretzat autogestioa alternatiba da. Guztiz beharrezkoa iruditzen zait diskurtso ofizial eta modan daude horien kontra. Aparte, askoz ere eraikitzaileagoa iruditzen zait.*
- *Niri falta zait hau gehiago definitzea. Ko-kudeaketarekin ulertu daiteke gauza bat, edo beste bat. Nire ustez hibrido baten modukoa beharko luke, gauza batzuetan izango duena gehiago hemendik eta besteetan gehiago handik.*
- *Ni horrekin ados nago, erdian horregatik jarri naiz. Nik uste dut ko-kudeaketa ezinbestekoa izango dela arlo batzuetan, bereziki Gaztelekua ere hor dagoelako. Baita, baita ere, finantzaketari dagokionean, hitzarmen bat ere beharrezkoa izango dela. Hitzarmen hori publikotik dator eta itzulpen bat eman beharko dio herriari, baina funtzionamenduak berak emango diola iruditzen zait. Funtzionamendu hori garatzeko sekulako independentzia*

emango dio, autogestioaren bidean izugarritzko baliabidea izango da, nahiz eta kontraesankorra izan zentzu batean. Hibrido horretan ni erdian kokatzen naiz horregatik, hitzarmena hor zegoen eta horren bidez Elkargunean bateratuta sortu daitezkeen ekimen askori erantzun ahalko dielako. Eta etorkizunean buru-askea izango balitz eta ez balu hitzarmenik beharko, nire iritziz hobe. Baina, betiere, Udalarekin elkarlan estuan, kudeaketa kontuetan. Proiektuaren sorreratik hor dagoen kontu bat da: prozesu hau Udalak finantzatu ez baligu...

Finantzaketaz:

- *Hasteko, eraikina bera finantzatzeko, eta barruko guztia. Eta gero Ziortzako proiektua, sormenerako kontuak... Eta Elkargunean egon daitezkeen egitasmo partekatuetarako. Hein handi batean Udalaren dirulaguntza beharko genuke. Gero barra ere hor egongo da,*
- *Bai, auto finantziazioa ere beharko da. Gaur egun, garbi esanda, kultur antolakuntzan ibili garenok badakigu, zerotik proiektu bat abiatzea buru-askea izango dena nahiko zaila ikusten dut nik.*
- *Beti komodo egon gaitezke dena diruz laguntzen badigute. Dena zuria, polita eta berria izateko aukera horretatik askotan ihes egitea askotan kosta egiten zaigu.*
- *Ondo iruditzen zait, baina errealitatera joanda: eraikina irekitzen den egunean zer?*
- *Nik uste dut batzuetan elkarren kontrako eredu bezala ikusten ditugula, udala eta autogestioa. Baina, iruditzen zait, gobernantza eredu berriez hitz egiten dugunean, nahasketa ezberdinak ahalbidetzeko eta izaera ezberdinak dituzte proiektu eta funtzionatzeko eren uztartze bat bilatu behar dugula. Agian zati bat lizitatuta egongo da, beste batzuk hitzarmen bat beharko dute... Guzti hori kudeatzeko batzorde bat beharko da, horizontala. Betiko eskemetan ulertzen dugun kontrajarritasun hori izan daitekeela beste era batera.*
- *Hori da nola definitzen dugun kudeaketa publikoa. Kudeaketa publikoa zer da, Udala zer da? Udal gobernu lau urterik behin bozkutzen duguna eta gero langile publiko batzuk? Eta zer da autogestioa? Horrek asko eragiten du lerro honen mugimenduan.*
- *Gobernutik etortzen direnak hitzak eta ideiak dira. Horizontaltasuna askotan aldarrikatzen da, baina nik pertsonalki ikusten dudana da bertikaltasun bat. Gobernuaren hitzak sinistu daitezke edo ez, baina autogestioan guk ematen dugu hitz hori.*
- *Lehen egin dugun ariketan, autogestioaz hitz egindakoa, goitik beherako logika bat irudikatu dugu, gutxi batzuen artean erabakiak hartu goitik behera. Autogestioan bertikaltasun hori ere egon daiteke.*
- *Beste ideia bat gehitu nahi nuke ko-kudeaketaren aldekoa: egia da proiektu hau autogestiotik abiatu zela, gaztetxe prozesu batetik, baina bidean askoz ere dimentsio zabalagoa hartu du,*

eragile gehiago batu dira, Udala sartu da... eta, beraz, herri osoari zabaldu zaio proiektua. Gune auto gestionatuari alde positiboak ikusten dizkiot, baina baita arriskuak ere: batzuentzako den gune bat bakarrik bihurtu daiteke eta Usurbilen jende ezberdin asko bizi gara eta horiengana guztiengana iristeko Udalaren atea irekitzea abantaila iruditzen zait.

- *Ni finantziazioan auto gestioaren oso alde, baina horretaz hitz egiten ari bagara, uste dut oso beharrezkoa dela ze kontsumo eredu bultzatuko dugun eztabaidara ekartzea. Normalean barra bat jartzen dugu, bertan alkohola saltzen dugu, horrek harremantzeko modu bat dakar... Proiektu honetan Gaztelekua ere egongo da, Ziortzako gazteak ere baita, eta erabakitzen dugunarekin transmisio bat ematen ariko gara eta hori oso kontuan izan behar dugu. Hala egingo bagenu, nik hausnartuko nuke hori dena: nondik aterako dugun dirua, zer finantzatzeko...*
- *Ados, baina barraz gain, egon daitezke beste finantziazioa eskuratzeko beste modu batzuk.*
- *Zein dira modu alternatibo horiek?*
- *Sorkuntza mahaitik antolatuta erakusketa bat sarrerarekin, antzerki batzuk... denak ez du zertan alkoholarekin eta festarekin lotuta egon.*
- *Edo bazkideak sortzea, krofoundig bat egitea, kooperatiba bat sortzea... Ereduak egon dira beste toki batzuetan: kooperatiba bat sortu eta Udalarekin hitzarmen bat sinatu, adibidez.*
- *Batak bestea ez du baztertzen.*
- *Nik hitzarmena abiapuntu bezala ikusten dut abiatzeko. Agian etorkizun batean beste modu batera funtzionatzeko aukerak egon daitezke.*

Etorkizunaz:

- *Nik hemendik 10 urtetara hemen irudikatzen dut nire burua. Orain gehienak gazteak gara eta agian hasieran kostako da jende heldua gerturatzea. Baina gu adinean aurrera joan ahal gero eta anitzagoa izango da espazioa.*
- *Etorkizun horretan ez dut nire burua talde motorrean ikusten, baina parte hartzen ari naizenez guzti honetan, proiektuaren parte sentituko naiz.*
- *Guk gurea sentituko dugu proiektua.*
- *Ni kudeaketa ereduak baldintzatuko ninduke asko. Eta bereziki autogestioak urrunduko ninduke. Eta nire inguruko asko ere urrunduko lirateke.*
- *Nik ere berdina esan ahalko nuke, alderantziz. Nik uste gehiengoa hor erdian dagoela kokatuta eta erabakia ez dela bi muturretan kokatuko. Baina erdibideko hori definitzeko inportantea iruditzen zait auto gestioaren gaurko defentsa hau egitea, balore batzuk behintzat hor geratzeko.*

- *Niri pena ematen dit norbait urrunduko dela entzuteak. Denon artean erabakiko dugun zerbait da. Hemen egote soila garaipen handia da, proiektu puska da. Beraz, denarekin ados ez egon arren, ez naiz urrunduko. Bestetik, ni hemendik hamar urtera bakarrik ez, hogeira eta hogeita hamarrera ere ikusten naiz. Hau ez dugu adin tarte baterako bakarrik eraikitzen. Herri proiektu bat da, irekia. Hau ez da gaztetxe bat.*
- *Niri ere pena ematen dit, baina ulertzen dut. Usurbilen asko gertatzen da, batzuk errazago gerturatzen gara gauzetara, baina beste batzuei gehiago kostatzen zaie. Errealitate bat da, beste profil batzuei eragiten diena, eta horrela den heinean kontuan izan behar dugu.*
- *Nik uste autogestioa ez dela baztertzaila bere horretan. Baina iruditzen zait beldur hori badatorrela gaztetxean bizi izan dugun egoeragatik. Nik ez dut hala bizi, baina batzuentzat gaztetxea oso eremu itxian bihurtu zen eta horrek sentsazio hori lortzen du autogestioarekiko. Hau beste zerbait da: hasieratik oso irekia eta anitza eta horri heldu behar diogu.*
- *Iruditzen zait, zuek entzunda, muturrak gerturatzen ari direla.*

Adibide errealez:

- *Usurbilen baditugu adibideak. Aginako eliza zaharra, adibidez. Horrelako zerbait desioko genuke? Beste eredu bat gazte lokala da, Udalarena da, baina elkarteen gestionatzen dute.*
- *Udalarekin harremana ezinbestekoa izango da, eraikina Udalarena den heinean.*
- *Desberdinen nahasketa bat ikusten dut bai edo bai. Ezberdina izango da eragile bakoitzak izango duen funtzionamendua eta kudeaketa ereduak.*
- *Eta Udalak badu ardura bat, eraikin publiko bat uzten duen heinean, eraikin horretako erabiltzaileen artean gatazkak sortu ez daitezen, eragileen arteko elkarbizitza bat eman dadin. Ko-kudeaketa horretan, Udalaren inplikazio maila ere ezberdina izan daiteke: agian gatazkak daudenean soilik interbenitu behar du; edo agian gatazkei aurre egiteko gai izango dira eragileak beraien artean, gaiak koordinatzeko gai izango dira... ez dakit. Hor ere hibridotasun handia egon daiteke.*

Udalarekiko harremanaz:

- *Ni hitzarmenaren ereduak kokatzen naiz gehiago. Hitzarmen batek askatasuna ematen du negoziaketa egon dadin eta bi aldeak kontuan hartzeko.*
- *Askotan jartzen dugu talde motorra erdian. Galdera botatzen dut: udala talde motor horretan ikusten duzue? Ko-kudeaketa horren ikuspegitik, nik uste dut baietz, egon behar dutela.*
- *Nik uste ezetz. Talde motor horretan Udala egoteak asko baldintzatuko luke.*
- *Agian Udal ordezkari bezala ez, baina Gaztelekuetako koordinatzaileak egon beharko luke.*
- *Bale, baina zinegotziak eta teknikariak?*

- *Nik uste dut foro ezberdinak egon behar direla. Foro bat beharko da urteko logika eta eraikinaren kudeaketa koordinatzeko batzorde instituzional bat, bitariko bat, Udalarekin biltzeko. Baina Elkarguneak bertan egunerokoan ez luke Udaleko langileen presentziarik behar. Dena bat bezala irudikatzea oso zaila da.*
- *Nik ere ez dut beharreko ikusten udal ordezkari eta egotea talde motorrean. Beste bide batzuk topatu beharko dira Udalarekin koordinatzeko.*
- *Nik ere ez dut beharrik ikusten. Bai ikusten dut Gaztelekuko figura hori definitu beharko litzakeela udaleko jarraipen horretara iristeko. Eguneroko dinamikako talde motorrean ez dut beharrezko ikusten.*
- *Balitzko langile horren kontua ere aztertu behar dugu. Nik etorkizuneko kontu bezala ikusten dut, ez nuke horretan energia galduko.*
- *Ni ere bat nator. Bide egiten hasi behar dugu eta gerora etor daitekeen zerbait da. Baina, ordu batzuen liberazioa nik ikusten dut eragileei lan-karga kentzeko. Bideragarria ikusten duzun Elkarguneak militante propioak izatea? Dedikazio ordu libre batzuk egoteak horretan lagundu dezake.*
- *Ondo iruditzen zait gai hori kontenplatzea. Baina garrantzia gehiago emango nioke Elkarguneko militanteak sortzeari. Bestela, gerta daiteke eragileen dinamika hutsean geratzea eta ez da hori nahi duguna, ez? Elkargune bezala gauzak sortzeko bertakoak diren kideak beharko ditugu.*
- *Bai, eta figura hori errazen prozesu honetatik aterako da. Gu gara proiektua gehien bizi dugunak.*
- *Hori ere lotuta dago transmisioarekin. Gauza guztietan bezala, sorreran parte hartzen baduzu, ilusio horrek irauten du denbora batean, baina hemendik hamar urtetara hori mantentzea ez da erraza izango. Eta eragileetako kideak ere aldakorak izango dira. Horretan langile batek ere lagundu dezake.*
- *Bidea egiten hasi behar dugu eta gerora ikusiko da liberaziorik behar den edo ez.*
- *Baina, hasieratik horretarako aukera balego ondo ikusiko zenuke?*
- *Bai.*
- *Nik ez. Ea, gaizki ez nuke ikusiko, baina askoz ere aberasgarriagoa iruditzen zait ez egotea.*
- *Bat liberatu beharrean agian eragileek egin behar dute apustua eta eragile bakoitzetik pertsona batzuk ardua batzuetara jartzea.*
- *Eta kontua zer funtzio izan behar dituen pertsona horrek. Gauza bat da lan-kargak jaistea, baina pertsona horrek ezin du izan guztiaren epizentro.*
- *Hasiera konplikatu izango da eta lasai hartu behar dugula iruditzen zait.*
- *Eraikin horrek bizirik egon behar du, mugimendua behar du.*

- *Gero hor zintzilik geratu dira gauza praktiko batzuk: giltzak, garbiketa, erosketak, hondakinak nork aterako ditu...*
- *Txirikorda eta Errenteriako ereduetatik ikasi behar dugu. Egon beharko du Udalarekin partekatutako hitzarmen edo araubide edo ordenantza batek; baina baita guk sortutako barne-arautegi batek ere.*
- *Talde motorrak kudeatuko ditu areto handiaren erreserbak. Udaletxeak egingo balu galduko litzake Elkargunearekin harremana eta saretzea.*
- *Beti ere sistema horrek irekitasun osoa bermatu behar du. Auto-erregulatzeko mekanismo batzuk beharko ditu talde motorrak.*

Gogoeta partekatuaren amaitzeko, **Udaleko kultura teknikariak eskatu du hitza**: Usurbilen esperientziak badaude, ludoteka adibidez. Udalak espazioa uzten du eta familiek kudeatzen dute. Beraien arauak dituzte, garbitasuna beraiek egiten dute, giltzaren kudeaketa... Guri ere gertatzen zaigu, Foru Aldundiko espazioetara joaten garenetan beste herrietakoak harritu egiten dira horrekin. Baina, uste dut, badagoela horretarako kultura Usurbilen eta egingarria badela. Dirulaguntza lerro bat badugu eta horra aurkeztu daitezke eragileak eta irizpide batzuen baitan banaketa egiten da. Berme batzuk egon behar dira eta Udalaren lana hor ikusten dut. Baita aurrez dauden proiektuekiko oreka bermatzen ere. Nik beti esan izan dut eta uste dut gure filosofiarekin bat egiten duela: askotan sortzen den emaitza bezain garrantzitsua da egiten den prozesua. Bidea oso inportantea da, gero hobeto edo okerrago egingo da etortzen den hori; baina, kultura badagoela ikusten dut, gauzak modu honetan egiteko, oinarri sendoa badago.

4. Balorazioa eta itxiera

Azken ariketaren ostean, talde handian mantenduta, bakoitzari hitz bat erabiliz saioa baloratzeko eskatu diegu:

- *Aberatsa.*
- *Sakona. Gauza asko zehaztu ditugu.*
- *Zalantza. Meloi asko ireki ditugu.*
- *Anitza.*
- *Konbentzituta.*
- *Taldea.*
- *Bidea. Geroz eta garbiago ari naiz gauzak ikusten.*
- *Ibilbide handia egin dugu onaino iritsi arte, biana ordainik geratzen ziagu.*

- *Irekita. Meloi asko irekita eta jarrera aldetik irekita, gauza asko ditugu eta finkatzeke.*
- *Puntu klabeak. Gerturutzen ari gara.*
- *Saski bat. Beti erdi irekita dago, ateratzeko eta sartzeko aukerekin.*
- *Nahastuta. Gaiei bueltan ematen.*
- *Ni koloretsu. Kolore asko, baina oraindik koloreak elkarrekin ondo uztartu gabe.*
- *Aberatsa. Gauza asko atera direlako.*
- *Elkartzea, elkarbizitza.*
- *Sormena. Ideia asko atera dira.*
- *Ilusioz. Lurreratze bidean.*

Saioa itxi aurretik, **azken ohar bat** partekatu dugu:

- Izen-proposamenak jasotzeko ariketa bat egin zen bere momentuan, eragileetatik proposamenak jaso dira eta badugu dagoeneko izen zerrenda bat; baina herrira zabalduko da proposamenak jasotzeko aukera: maiatzaren 27tik ekainaren 3ra bitarte. Aurrez aurre, buzoien bidez egin ahalko da; edo sarean galdetegi bidez. Ekaineko saiora eramango dira proposamenak Talde Eragilean filtro bat pasa ondoren.

Azkenik, eskerrak eman eta **hurrengo hitzordura** arte agurtu gara.

- Ekainaren 15ean, larunbata, 10:00etatik 13:30era, Udarregi Ikastolan